

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus - www.donostia.ehbildu.eus**ARAUA ALDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA, HIRI HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA DELA-ETA**

EH BILDU udal taldeak araua honela aldatzea proposatzen du, zerga-progresibitateko irizpideak txertatzeko, 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 9. artikuluan jasotakoaren arabera, honako hobari hau gehituta:

«9. artikuluan (Hobariak)», 3. puntu hau eranstea:

3.- Etxebizitzetako hondakinen bilketa modalitatean, honako hobari hauek eskatu ahal izango dituzte subjektu pasiboek, baldin eta bizikidetzaren unitateak ez baditu gainditzen urteko diru-sarreraren muga hauek:

Bizikidetzaren unitatea	Hobaria		
	%80	%65	%40
1.	<15.400	15.400 - 17.500	17.501 – 21.000
2.	<20.160	20.160 - 22.820	22.821 – 27.440
3.	<21.980	21.980 – 25.060	25.061 – 30.100
4 edo gehiago	<23.660	23.660 – 27.020	27.021 – 32.340

Hobari honen onuradun izateko, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztiek etxebizitzan erroldatuta egon beharko dute eskaera aurkeztu aurretik.

Bizikidetzaren unitate hartuko da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikuluan araututakoa.

Urteko diru-sarrerak zenbatzeko, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztien aurreko urteko PFEZaren aitopenearen likidazio-oinarria hartuko da kontuan. PFEZaren aitopena aurkeztu ez badute, aurreko urteko etekin gordinak hartuko dira kontuan (nominak, ondare-sarrerak...).

Hobari honen onuradun izateko, subjektuak kuota konpentsazioagatik zuzentzeko ordenantzan ezarritako aukeraren onuraduna ere izan behar du. Erabilitako konpostaje-sistema edo biohondakinak uzteko sistemaren arabera ezartzen da zuzenketa hori ordenantzan.

San Sebastián, 8 de agosto de 2024

Juan Karlos Izagirre Hortelano
portavoz del grupo municipal EH Bildu